

GOBERNU BATZARRA

2016. 12. 19

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko abenduaren 19an, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Iñigo Alonso Sarasibar
Jokin Azkue Arrastoa

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Tolosako Udalaren transferentzia Tolosa Lantzen S.A. Udal entitatearen alde, Usabal kiroldegiko Futbol zelai artifizialeko harmaila estaliaren obrak eta alboan automatikoki garbitzen den komun publikoaren ekipamenduagatik.
- 3.- Langunea Tolosaldean 2016
- 4.- Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren esleipena.
- 5.- Iurreamendi Egoitza: Azaroko faktura.
- 6.- 40/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko abenduaren 5ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako Udalaren transferentzia Tolosa Lantzen S.A. Udal entitatearen alde, Usabal kiroldegiko Futbol zelai artifizialeko harmaila estaliaren obrak eta alboan automatikoki garbitzen den komun publikoaren ekipamenduagatik.

2015eko apirilaren 28ko Ohizko Osoko Bilkuran Tolosako Udalak onartu zuen bere aurrekontuetatik 141.000 euro transferentzia egitea Tolosa Lantzen, S.A., entitate publikoaren alde, " Usabal kiroldegiko Futbol zelai artifizialeko harmaila estaliaren obrak eta alboan automatikoki garbitzen den komun publiko hornitze-lanak" egin eta finantzatzeko.

2015eko abenduaren 28an, kontratua sintatu zuten Tolosa Lantzen, S.A., udal entitateak, alde batetik, eta Construcciones Aierbe, S.L. ,obratako enpresak, bestetik.

2006ko urtarrilaren 11n, hasi ziren obrak eta 2016ko apirilaren batean bukatu; esleitutako prezio eta epe berean.

Beraz, hau dena kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Usabal kiroldegiko Futbol zelai artifizialeko harmaila estaliaren obrak eta alboan automatikoki garbitzen den komun publiko hornitze-lanak “ ongi burutu direla ziurtatu ostean, Tolosako Udalak, aipaturiko osoko bilkuran onartu zenaren baitan, 141.000 euroko transferentzia egitea Tolosa Lantzen, S.A., udal entitatearen alde.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Tolosa Lantzen,S.A., Sozietateari eta Kontuhartzaitzari.

3.- **Langunea Tolosaldean 2016**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2016ko ekainaren 15ean egindako bilkuran (2016ko ekainaren 16an argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 342.960,23 euroko programa bat aurkeztu zuen 2016ko abuztuaren 22an.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusianaren ebazpenaren bidez Tolosako Udalarari 342.960,23 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute “Langunea Tolosaldean 2016” programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren enpresei dirulaguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badituzte.

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Dirulaguntza
Nagore Azuabarrena Anduaga	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Precocinados	1	6 hilabete	Osoa	6.000€

Lanbroa, S.L.				
Nerea González Aranceta	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Orbinox Valves International, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Jatorkin, asociación pro inmigrantes	1	6 hilabete	Osoa	9.000€
Gipuzkoako SOS Arrazakeria	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Jose Miguel Gurruchaga Otamendi y otro C.B.	2	6 hilabete	Osoa	15.000€
Asociación de Solidaridad y Ayuda Humanitaria "Zutani-Tolosa"	1	6 hilabete	Osoa	9.000€
Sidredia Begiristain	2	6 hilabete	Osoa	15.000€
Arrietoquieta Zugarramurdi Irigoyen	1	6 hilabete	Osoa	9.000€
Irupaper, S.L.	2	6 hilabete	Osoa	12.000€
Garaikoetxea Txakolindegia, S.L.	2	6 hilabete	Osoa	12.000€
Patxine Semeak, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Construcciones Metalicas Eldu, S.L.L.	2	6 hilabete	Osoa	12.000€
Gu Ki Makrobiotika, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	9.000€
Montajes y Mecanizaciones Basalan, S.L.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Reparación de maquinaria Saizar, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Angel Luis Oviedo,	1	6 hilabete	Osoa	6.000€

S.L.				
Talleres Allus, S.A.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Ibarra Argi-Lanak, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Benefit Parafarmazia, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Olgaiz Construcciones Mecanicas, S.L.L.	2	6 hilabete	Osoa	12.000€
Juan Carlos Amiano Echezarreta	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
M ^a Jesús Oñativia Gonzalez de Uriarte	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
M ^a José Cipitria Ecenarro	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
M ^a Teresa de Olabarria Ruiz	1	6 hilabete	Osoa	5.657,20€
Laser Oria, S.L.	2	6 hilabete	Osoa	12.000€
Belarmendi Mendiko Nekazaritza, S.L.	4	6 hilabete	Osoa	24.000€
Rafa Gorrotxategi 1680, S.L.	1	3 hilabete	Osoa	3.000€
Rafa Gorrotxategi 1680, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	6.000€
Nereyda Isabel Chavarria	1	6 hilabete	Osoa	6.000€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailtzari eta interesatuei.

4.- Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren esleipena.-

2016eko irailaren 19an ospatutako Gobernu Batzarrean onartu zen Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua

4.- Adjudicación del servicio de limpieza de edificios municipales y mobiliario urbano.-

La Junta de Gobierno, de fecha 19 de septiembre de 2016, aprobó el expediente para la contratación del

kontratatzeko espedientea.

servicio de limpieza de edificios municipales y mobiliario urbano.

Izapideak egin ondoren, lizitazioa EBAOn, Estatutako Aldizkari Ofizialean, GAOn eta Kontratatzailearen profilean, argitaratu zen, interesatuek proposamenak aurkez zitzaten.

Tramitado el correspondiente expediente de contratación mediante procedimiento abierto, se publicó el anuncio en el DOUE ; BOE; BOG y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

- Eulen, S.A.
- Garbialdi, S.A.
- Comercial de Limpieza Villar, S.A.

2016ko abenduaren 1ean, Kontratazioa mahaiak, azaroaren 29an egindako txosten teknikoaren arabera Eulen, S.A. enpresaren alde egin du kontratazio proposamena.

Con fecha 1 de diciembre de 2016, la Mesa de contratación, de conformidad con el informe técnico emitido el 29 de noviembre de 2016, realiza propuesta a favor de la empresa Eulen, S.A.

Horretan oinarrituta, 2016/2183 dekretuaren bidez, Eulen, S.A., enpresari errekeritu zitzaion behin betiko fidantza aurkeztea. Enpresak bete du aipatu betebeharra.

En base a ello, mediante decreto nº2016/2183, se requiere a Eulen, S.A., la presentación de la fianza definitiva. La empresa ha dado cumplimiento a dicho requisito.

Guzti horregatik, azalpen zatian adierazitako guztia eta hirigintzako batzordearen diktamena kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, previo dictamen de la Comisión de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

RESUELVE

LEHENA.- Eulen, S.A., enpresari adjudikatzea Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua, hurrengo era honetan:

PRIMERO.- Adjudicar a Eulen, S.A., el contrato del servicio de limpieza de edificios municipales, en lo siguientes términos:

- Prezioa: 445.684,97 euro/urteko, honela zatituta: 368.334,69 + %21a (BEZari dagokiona).
- Epea: bi urtekoa kontratua sinatzen denetik. Beste bi urte luzatzeko aukerarekin, Gobernu Batzarrak espresuki hala erabakiz gero.

Precio:445.684,97 euros/anuales, con el siguiente desglose: 368.334,69 € + 21% de IVA.

Plazo: 2 años. desde la firma del contrato, pudiendo prorrogarse por 2 años más, previo acuerdo expreso de la Junta de Gobierno.

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikoaren txostenetan jarritako arrazoiak izan dira; hauexek, laburbilduta eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en los informes emitidos por el técnico municipal y que se resumen de la siguiente manera:

	Puntuazio teknikoa	Puntuazio ekonomikoa	TOTALA
Eulen, S.A.	28,5	67,84	96,34
Comercial de Limpieza Villar, S.A.	24,0	69,06	93,06
Garbialdi, S.A.	19,5	70,00	89,50

BIGARRENA.- Adjudikazioa jakinaraztea adjudizaziodun gertatu ez diren izangai guztiei.

SEGUNDO.- Notificar la adjudicación a todos los licitadores que no han resultados adjudicatarios .

HIRUGARRENA.- Udal erakinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren adjudikazioaren erabakia argitaratzea kontratatzailearen profilean, GAOn, BOEn eta EBAOn.

TERCERO.- Publicar la adjudicación del contrato del servicio de limpieza de edificios municipales en el perfil del contrato, en el BOG, BOE y en el DOUE.

LAUGARRENA.- Kontratua formalizatzea, adjudikazio hau jakinarazi beste liztatzaleei eta hamabost egun iragan eta gero.

CUARTO.- Establecer que el contrato se formalizará una vez transcurrido los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

5.- Iurreamendi Egoitza: Azaroko faktura.

Iurreamendi egoitzak azaroko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea azaroko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **22.912,35 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 855,60 €
Elbarrien defizita: 22.056,75 €

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

6.-40/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **40/2016** faktura zerrenda aurkeztu du;108.459,13 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **40/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde